



Aurrekontuen amaraunean

Datorren astelehenean, hilak 21, 2003ko aurrekontuen aurreproiektua eztabaidatu du Udalbatzak. Aurten, lehendabiziko aldiz, prozedura berria erabiliko da aurrekontuak onartzeko, izan ere, aurrekoetan ez bezala, proiektua baino lehen aurreproiektua eramango da osoko bilkurara.

Ainhoa Irazu

Orain arte, Udalean, aurrekontuak onartzeko prozedura jakin bat erabili izan da. Lehendabizi, Gobernu Batzordeak aurrekontuaren aurreproiektua eztabaidatu ohi zuen, eta onartuz gero, proiektu zehatzagoa prestatzen zuen osoko bilkuran eztabaidatzeko. Proiektuan bertan, Udalaren hurrengo urteko

Inbertsio nagusiak

Egitasmoa	2003
Aguariuma handitzeko lanak.....	330.556
Loiola biziberritzeko plangintza.....	1.427.403
Altza biziberritzeko plangintza.....	1.603.838
Zubietako hirigintza lanak.....	1.021.720
Zuhaiztiko kiroldegia.....	1.416.176
Victoria Eugenia birgaitzea.....	850.888
Okendo kultur etxea handitzea.....	1.073.363
Monseko tenis pistak estaltzea.....	1.141.923
Urban ekimena.....	1.894.210
Edadetuentzako apartamentuak (Benta Beñi).....	601.012
Errentako babes ofizialeko etxeak (kontadores).....	751.265
Errentako babes ofizialeko etxeak (Loiolako Ibaierria).....	601.012
Errentako babes ofizialeko etxeak (Etxarrienen).....	1.502.530
Auditx Akular eta Landaroko plangintzak.....	240.404

S. Corcuera:
«Jarraitu beharreko
lerroak
finkatu ditugu»

Luze Zabalean


ekitaldi ekonomiaren berri zehatza ematen zen: diru sarrerak eta gastuak, inbertsioak, atal bakoitzari zegokion aurrekontua (euskara, ongizatea, etxebizitza, kultura...) eta abar.

Aurten, ordea, PSE-EEren Udal Gobernuak gutxiengoan dago, eta formula berria jarri du mahai gainean aurrekontua aurrera ateratzeko. Izan ere, hilaren 21eko osoko bilkuran, Udalbatzak ez du aurrekontuaren proiektua eztabaidatuko, aurreproiektua baizik, hau da, hamar orrialdeko zirriborroa. Orrialde horietatik sei inbertsio jakin batzuei buruzkoak dira, eta gainerakoetan datorren urteko aurrekontuaren diru kopururik handienak bildu dira: gastua, diru sarrerak, aurrezkia, amortizazioa... Hala eta guztiz ere, zirriborroan ez da kopuruon xehetasun handirik ematen. Halaber, ez da sail edo atal bakoitzari dagokion aurrekontua finkatu.

Lerro nagusiak eztabaidagai

Susana Corcuera Ogasun zinegotziaren arabera, Gobernu Batzordea gutxiengoan izateak ekarri du formula berria. *"Adostasuna bilatu behar dugu eta gardentasunez jokatu. Guk jarraitu beharreko lerro nagusiak finkatu ditugu, osoko bilkuran denon artean eztabaida ditzagun. Ildo horretatik, harremanetan gara oposizio-taldeenkin akordioak lortu ahal izateko"*, dio.

PSE-EEK badaki, ordea, datorren aste-



Oposizioak ez du proposamena oso begi onez ikusi


lehenean bere proposamena bertan beharra gera daitekeela. Izan ere, Ogasun Ba-

tzordean zirriborroa eztabaidatu zenean, PPK eta EA-EAJk aurkako botoa eman zuten. Donostiako Sozialista Abertzaleak taldea, berriz, abstenitu egin zen. Beraz, akordiorik ezean, oposizioak ez du aurreproiektua babestuko.

Adostasuna lortuko ez balitz, PSE-EEK beste karta bat ipiniko luke mahai gainean: *"Zirriborroa onartzen ez bada, adostasunerako aukerarik ez dagoela ulertuko dugu. Beraz, aurtengo aurrekontua luzatuko genuke 2003n, hau da, lau urteko plangintzan hitzartutako inbertsioak bere horretan utziko genituzke. Inbertsio berriek, berriz, Udalbatzaren oniritzia beharko lukete"*, jakinarazi digu Ogasun zinegotziak.

Legealdi amaierako aurrekontua

2003ko aurrekontuaren berrikuntza nagusiak inbertsioaren %23ko jaitsiera eta aurrezkiaren %5eko igoera dira. Zirriborroaren arabera, 56 milioi euro bideratu nahi dira inbertsioetara. Gainerakoan, 164 milioi euroko ohiko gastua aurreikusiko du Udal Gobernuak, eta 16 milioi euro aurreztea. Bestalde, diru sarrera arruntak 180 milioi euro dira. Ildo horretatik, Udal Gobernuak zergak %3,5 igozteko proposatu du, lursailen salmentetatik sortutako gainbalioa, hilerrietako zergak eta autobus txartelak salbu. Hilerrietako zerga %20, autobus txartela %6,25 eta lursailen



salmenten gainbalioa %4 igo nahi ditu Udal Gobernuak.

Odon Elorza Donostiako alkateak dato-

ren urteko aurrekontua urte amaiera baino lehen onartzea nahi du du. Dena de-

la, aste honetan akordiorik lortzen ez bada, ez dirudi proposamenak aurrera egingo duenik.

Iritziak

Carlos Sancho, PP



Carlos Sanchoi prozedura berria harri-garria iruditu zezake, "sekula ez baita horrelakorik egin". Hori bai, aurrekontua aurrera ater-

ratzeko bide baliagarria izan daitekeela dio. "Baldin eta Udal Gobernuaren entzuteko eta eztabaidatzeko prest badago, izan ere, orain arte ez digute zirriborroa eztabaidatzeko aukerarik eman. Hori gutxi balitz bezala, ez dugu oinarriko informazioa jaso: gastuak eta sarriak, esaterako". Sanchoren arabera, 2003ko aurrekontuak bi baldintza bete beharko lituzke. "Ezin dugu zorra handitu. Beraz, aurreztu egin behar dugu. Bestetik, erakundeen diru sarrerak berriak bilatu beharko lirateke".

PPko zinegotziak ez ditu aurreratu bere alderdiak zein jarrera hartuko duen asteleheneko bilkuran, baina argi du aurrekontua aurrera ateratzeko adostasuna behar dela. "Denon artean zirriborroa hobetu beharko genuke. Akordioak bilatu behar dira, helburuak finkatzeko".

Enrike Arana, EA-EAJ



EA-EAJ koalizioko zinegotziaren hitzetan, aurtun erabiliko den prozedura berria

PSE-EEren beste amarru bat da. "Udal Gobernuak ez du aurrekontuaren zirriborrorik aurkeztu, inbertsio zerrenda hutsa baizik. Gure ustez, amarru horrekin, eztabaida eta parte hartze saihesu nahi dira", dio Aranak. EA-EAJ koalizioko zinegotziak gogor salatu du Udal Gobernuaren jarrera. "Astelehenean mahai gainean jarriko den zirriborroa onartzen ez bada, Elorzaren gobernuak aurrekontu proiekturik ez aurkezteko eta aurtengo luzatzeko tentazioa izan lezake". Bide hori kezkatzeko modukoa dela uste du Aranak. "Herritarrek ez lukete aukerarik izango ekarpenak egiteko eta oposizioko taldeak ezingo genuke zuzenketarik aurkeztu Udalaren jarduna hobetzeko".

Josetxo Ibazeta, Donostiako Sozialista Abertzaleak



Donostiako Sozialista Abertzaleak taldeko kideek ere ez dute begi onez ikusi Udal Gobernuak erabiltako prozedura. "Ho-

irregatik, zirriborroaren aurka egingo dugu", esan digu Josetxo Ibazeta zinegotziak. Bestalde, aurrekontua egiteko eta onartzeko prozesuan herritarrek parte hartzeko aukerarik ez dutela dio Ibazetak. "Udal Gobernuaren proiektuak ez ditu gainerako alderdien iritzia kontuan hartu. Horrez gain, aurrekontu bat herrikoia izan dadin, harreman dinamika bat sortu behar da. Hemen, ordea, ez dago horretarako ino-

lako borondate politikorik, nahiz eta Udalak, martxoan, aurrekontua prestatzeko metodologia zabalagoa erabiltzeko konpromisoa hartu zuen", dio.

Ibazetak aurrekontuaren funtzioa berri kritikatzen du: "Gure helburua ondasunak banatzea bada, aurkeztu diguten egitasmoa ez dator bat funtzio horrekin, izan ere, ez da ondasunen banatzea".

Susana Corcuera, PSE-EE



Datorren astean eztabaidatuko den aurrekontua legealdi honetako azken aurrekontua da, eta Susana Corcuera

Ogasun zinegotziaren arabera, aurreko legealdietan finkatutako helburuak erdiesteko sortua da. "Bat egiten du azken urteetan finkatutako helburuekin eta plangintzekin: Etxebizitza, Gizarte Ekintza, Ongizated... Batetik, Altzako eta Loiolako zaharberrietzeekin hasiko gara. Etxebizitzari dagokionez, Auditurako plana egingo dugu, eta bestelalde, Loiolako lbaertzean eraikitzen hasi gara. Badira aipatu beharreko beste hainbat proiektu ere: Groseko eta Amara Berriko kultur etxeak handitzea, kirol egitasmo berriak eta abar". Ogasun zinegotziaren arabera, ez da egia aurrekontuak egiterakoan alderdien eta herritarren iritzia ez direla kontuan hartzen. "Oraino oinarriko dokumentua jarri dugu mahai gainean alderdi guztien artean eztabaidatzeko. Aurrerago herritarrei iritzia eskatuko diegu".